



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

ESPAÑA 	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
ZK/NRO 37000126	

2015eko URRIA - 167. zenbakia

25 urte bete ditugu bertsolaritza ikastetxetara zabaltzen

22.500 ikasle eta 44 irakasle izango ditu ikasturte honetan transmisio proiektuak

Abiatu berri den ikasturte honetan 25 urte betetzen dira Bertsozale Elkartearen bertsolaritza proiektua eskaintzen hasi zenetik, ikastetxeekin eta udalekin elkarlanean.

Nafarroan abiatu zen ekimena eta urtebetera Bizkaia jarraitu zion. Ikastetxeen eta udalen eskariz, proiektua hedatzen joan da urtez urte eta egun Euskal Herriko herrialde guztietan lantzen da bertsolaritza ikastetxetan, eskola orduetan; 2015-2016 ikasturtean 22.500 ikasle hasita daude bertsozaintza ezagutzen, Bertsozale Elkartearen 44 irakasleren eskutik.

Proiektuaren oinarrian *Bertsolaritzaren Curriculum* dago, eta klaseak emateko baliatzen den *Gu ere bertsoan* ikasmaterialak Ixaka Lopez-Mendizabal saria jaso zuen 2011. urtean, EAEko Hezkuntza Sailaren eskutik. Datoren urteotan ikus-entzunezko materialak ugaritzea izango da Bertsozale Elkartearen ahalegina.

Ikastetxe publikoak, kristau eskolak zein ikastola kontzertatuek hartzen dute parte ekimenean. Aipatzekoa da Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak duten elkarlan hitzarmena; bi erakundeen artean, ikastolatan bertsolaritza orduak bermatzeaz gain, gaztetxoei zuzendutako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa antolatzen baitute elkarlanean.

Bertso-eskolak ere, martxan

Ikasturtea hastearekin batera, bertsoarako irrika piztu zaien haur, gaztetxo zein helduek, bertso-eskolan izena emateko ateak zabalik dituzte. Egunotan martxan hasi dira berriro hango eta hemengo bertso-eskolak. Inguruan zein bertso-eskola dituzun jakin nahi izanez gero eta izena emateko argibideak jasotzeko, jarri zure herrialdeko Bertsozale Elkartearekin harremanetan.

Arabako Bertsozale Elkarte

araba@bertsozale.eus/ 945 01 05 05

Bizkaia Bertsozale Elkarte

bizkaia.transmisioa@bertsozale.eus
94 681 2711

Gipuzkoako Bertsozale Elkarte

gipuzkoa.transmisioa@bertsozale.eus
943 67 05 75

Iparaldeko Bertsolarien Lagunak Elkarte

iparralde@bertsozale.eus
59 541 504

Nafarroako Bertsozale Elkarte

navarroa@bertsozale.eus
948 14 37 47

Euskal Herriko Bertsozale Elkarte

Transmisio Saila
transmisioa@bertsozale.eus
943 69 41 29

OIER IURRAMENDI Zarautz, 2015-IX-09

Lizardi sariketa, bertso onenaren saria



Gaia: Badakizu hau dela zure azken aukera.

Doinua: ETArekin su-etenetik

Larunbata izaten da maitasunaren azoka batzuk elkarri begira ta besteak elkar joka. Nik aspalditik neska bat baneukanez begiz jota nere kuadrillako denek zortzerik onena opa. banijoa bereganahiz nerbioak oztopa bere aurrean trabatu erori, kubata bota baina ez du asko axola neri begira dago ta. (bis)

Sentitzen det ditudala bihotz barruan bi tiro nere haserako planak eman ditu zortzi jiro. Lotsagorritan jartzen naiz begiratzen dut aldiro lurrera erori naiz ta orain dena negatibo. Etxera noa korrika badet hamaika motibo nahiz ta saiatu izanak autoestimua igo hurrengo larunbatian saiatu behar det berriro. (bis)

Astebete igaro da berriz ere larunbata eta ibiliko gera taberna hortan bueltaka. Inoiz ez da lagungarri tabernetako zarata baino lotsa gordeko det eta beldurra aguanta. Oraingoan lortuko det hau azken aukera da ta eta hortxe hasiko naiz belar ondoan esaka "Aizu, hartu nahi al dezun lehengo asteko kubata?" (bis)



Herrialde guztietan lantzen da transmisio proiektua.//XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Agurainen egingo da aurtengo bertso-eskolen eguna



Egitarau zabala izango du Bertso-Eskolen Eguna.//XDZ

Azaroaren 14an Senperetik Agurainera egingo du salto urteroko BEEK, Bertso Eskolen Eguna. Aurtengo egundoko egitaraua izango dugu: bertso-poteoa, bazkaria, bazkalostea, kontzertua... Urriaren bigarren astean jakinaraziko ditugu xehetasun guztiak. Horrekin batera jarriko ditugu bazkaritarako eta lotarako tokia eskuratzeko sarrerak salgai, www.bertosarrerak.eus webgunean.

Berrikuntza batekin dator 2015eko Bertso Eskolen Eguna, bertan egitasmo berri bat aurkeztuko baita: Bertsotruk, Helduen bertso-eskolen arteko desafioak. Euskal Herri osoko 26 bertso-eskolek hartuko dute parte taldeka eta zirkuituaren nondik norakoak Agurainen bertan ezagutuko ditugu.

Kantu inprobisatuaren jardunaldiak antolatu ditu Mintzolak

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuarekin elkarlanean, ahoz kotasunaren inguruan nazioarteko bi jardunaldi antolatu ditu udazkenerako Mintzola Fundazioak. Horietako lehena irailean egin zen Leonen eta bigarrena, berriz, Bartzelonan izango da azaroan.

Leongo jardunaldiak irailaren 25ean eta 26an egin ziren, Cerezales del Condado herrian eta Leon hiriburuan. Arestian aipatutako bi erakundeekin batera, Fundación Cerezales Antonio y Cinia eta Fundación Sierra Pambley ere izan ziren Leongo jardunaldien antolaketa lanetan.

Bertan Ane Labaka eta Maialen Lujanbio bertsolariek hartu zuten parte. Itxaso Paiak egin zituen gai-jartzaile lanak eta Karlos Aizpuruak, itzultzailearenak. Euskal Herriko ordezkariekin batera, Kanariar Uharteetako inprobisatzaileek eta Galiziako regueifeiroek hartu zuten parte Leongo jardunaldietan.

Bartzelonako jardunaldiak azaroaren 6tik 8ra egingo ditugu.



Igande arratsaldeetan emitituko dute Hitzetik Hortzera.//XDZ

Baigorriin jokatu da Hernandorena sariketaren edizio berria

Urriaren 17an jokatu da Hernandorena sariketaren aurtengo edizioa. Bertsularien Lagunak elkarteak Baigorriko Basaizea elkartearen antolatutako bertsolari gazteei zuzendutako ekimena.

Azken bi urteotan abian jarritako filosofiari jarraiki, oraingoan ere ez da ohiko epailerik izango saioan. Horren ordez, zenbait irizpide finkatu dituzte eta entzuleek haien iritzia emateko aukera izango dute.

Hainbat herrialdeetako bertsolari gazteek hartuko dute parte Hernandorena sariketan: Arabatik, Peru Abarrategi; Nafarroatik, Maddalen Lopez; Bizkaitik, Txaber Altube; Gipuzkoatik, Maider Arregi; eta Lapurditik, Lur Renteria, Aitor Servier, Nahia Sasco, eta Kerman Diaz.

Herriko Bixentainian jokatu da sariketa, 18:00etan hasita. Behin saioa amaituta afora izango da, Klika txarangak animatuta.



Bertsolari gazteek hartuko dute parte Hernandorenan.
//Bertsularien Lagunak

Hiru sorkuntza lan berri, Lankuren udazkeneko eskaintza kulturalan

Bertsularien sorkuntza lana abiapuntu duten hiru lan berriekin osatuko du Lankuren udazkeneko kultur eskaintza.

Lehena, Miren Amurizaren bertso sorta eta ipuinez osatutako *Kapulana bat zintzilik* emanaldia da. Publiko zabalarik zuzendutako emanaldi hau Lankuren eta Mundukideren elkarlanetik sortu da.

Bigarrena, berriz, Nafarroatik dator eta honek ere bat-bateko bertsoa eta ipuina uztartuko ditu, era oso ezberdin batean. Fernando Anbustegik eta Julio Sotok sortu dute *Istoria trukea(n)* emanaldia, publiko helduari zuzenduta dagoena.

Hirugarren emanaldia ere Fernando Anbustegik sortu du, eta kasu honetan haurrei zuzenduta dago. *Kontu eta Kantu* ipuin kontaketa eta bertsoa uztartzen dituen emanaldia da.

Katalogo zabala

Hiru emanaldi berri hauez gain, aurreko ikasturtean zehar martxan jarri ziren beste lan batzuk ere eskaintzen ari zaizkie Lanku kultur programatzailerei. Korrika Kulturalaren baitan *Bertsolaritzaren sekretuak, ixilduriko emakumeen historia* estreinatu zen urte hasieran. Emanaldi hau Gipuzkoako Bertsozale Elkartean sorkuntza lana izan da.

Ikasturtearen hasieran, Andoni Egañak eta Xabier Lizaso pianojoleak *Bi arreba* emankizunarekin izandako esperientzia errepikatu asmoz, *Garai hura gara* obra sortu zuten. Fernando Amezketa eta Xabier Munibe musikariaren pertsonailetan oinarritutako helduentzako emankizuna da.

Haurrentzako, berriz, *Hor konpon Marianton* bertso-antzerki-txontxongiloa ere herriz herri ari da, Oskar Estanga bertsolariaren eta Hodei Unzueta antzerkilariaren eskutik.

Zuen auzo edo herrian Lankuren emanaldiren bat antolatu nahi izanez gero, www.lanku.com aurkituko duzue beharrezko informazioa





Puntu jarrita

MAIDER ARREGI

Ederrari galdetu diozu kontraesanek, Miren. Besterik ez dut izaten buruan ... Testu ziztrin hau idazteko ere nahikoa lan:

"Zerbait orijinala idatziko dut. (Orijinala? Ez dago ezer orijinalik, Maider, dena esanda dago...) Ba, zerbait pertsonala... Nire kontraesanak, nire dudak, nire beldurrak... (Ez, ez, Maider, gehiegi dira, eta ez dute elkarrekiko loturarik). Orduan... Gaur egungo bertsolaritzaren kontraesanak idatziko ditut! (Ez, Maider, ez! Zein uste duzu zarela bertsolaritzari kritikak egiten hasteko? 19 urteko hasiberri bat baino ez zara eta!)"

Enfin. Bertsotan ere antzeko gauzak gertatzen zaizkit. "Gaur zerbait orijinala kantatuko dut. (Baina ez zaizu ezer orijinala bururatzen. Eta bururatzen zaizunean, askotan ez dakizu esaten. Eta esaten jakin arren, ez dakizu jendeari gustatuko ote zaion...). Pertsonaletik kantatuko dut. Egoera bakoitzean dagoena ni neu izango banintz bezala. (Baina egoera batzuetan ezin zara zu zeu izan, Maider ... Ez luke jokorik emango, antzezten ikasi behar da, Maider...)"

Berdina gertatzen zaizkizu saio aurretik zer jantzi erabakitzean. "Ba, egunero bezala jantziko naiz, ez? Ez dut naizena ezkutatuko. (Baina, ze? Zure besape iletsuak bistan? Gona hau mendiko bota hauekin? Ez, ez. Horrela jantzita protagonismo guztia kentzen diozu esaten duzunari, Maider). Baina arazoa ez da nirea! Berez ez luke inporta behar nire janzkerak. (Baina inporta du, Maider. Jantzi zaitez zure egun diskretuenetan bezala, eta aurrera! Ez zaizu ezer kostatzen!)"


Testu hau amaitzen noan heinean ere kontraesanak: "Idatzi dudana ez zaio inori interesatzen. (Baina barruak eskatzen zizuna idatzi duzu, Maider. Gainera, ez dakit zerbait hobea idazteko gai zaren). Bai. Gaur egun emakume bertsolari izatea nola bizi dudana idatzi behar nuen; gai zehatzagoa zen. (Baina azken batean, ez al da hori idatzi duzuna?). Berdin da. Zuk nola bizi duzu gaur egun emakume bertsolari izatea, Ane Zuazubiskar? Kontraesanik bai?"

Koplak

Urriaren 22an hasiko da Bertsoaroa Iruñean

Udazkena ailegatzearekin batera, Bertsoaroa ere iristen da Iruñera. Nafarroako Bertsozale Elkartek Iruñeko Udalarekin batera antolatutako ziklo beteranoak sei saio izango ditu aurten. Hitzaldi bat, hiru bertso saio, emanaldi berezi bat eta rap kontzertu batek osatzen dute aurtengo Bertsoaroaren egitarau mamitsua. Urriaren 22an hasiko da zikloa eta azaroaren 12an amaituko da.

Poto-Finixa



Final laurdenetan sartuko da urrian Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Urriaren 11n final zortzirenak amaitu ondoren, final laurdenetako faseari ekingo dio Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak. Urretxu-Zumarragan (urriaren 24an), Errenterian (urriaren 25ean), Zestoan (urriaren 31n), Ormaiztegin (azaroaren 1ean) eta Eskoriatzan (azaroaren 8an) jokatu dira fase honetako saioak. Txapelketaren inguruko informazio osoa www.bertsozale.eus webgunean duzue.

Jarraitu bertsoaren plaza

HITZETIK HORTZERA saioan, igandero, 15:00etan, ETB1en WWW.BERTSOA.EUS atarian egunero



PUBLIZITATEA